

PRACTICUM III-AREN INGURUKO ZENBAIT ARGIBIDE

1. Ikastetxean burutu beharreko egonaldia

2016ko azaroaren 21tik otsailaren 24ra (biak barne).

2. Ikasle esleipena

Ikasleek beraiek aukeratu dute eta adostu dute zuzenean ikastetxearekin practicum IIIko egonaldia egiteko lekua. Beraz, komeni da badaezpada beren titulazio eta minorrari dagozkion profilak betetzen dituztela bermatzea.

Bestalde, tutore esleipena egitean, ahalegindu gara practicum IIIko tutore denari bere GRALeko ikasleak esleitzen eta, bestetik, gainontzeko kasuetan, praktiketako tutore berari ematea GRALeko tutore beraren ikasle guztiak (ez da beti posible izan). Honetarako, sail afinitatea izan da irizpide nagusia, elkarren arteko lana eta koordinazioa errazteko.

Dagoeneko, ikasleak GAUREn kargatuta daude; ez, ordea, dagozkizuen kredituak (0,36 ikasleko), honek prozedura luzeagoa behar baitu.

3. Bilerak, noiz?

Irakasle guztioi gogoratzten zaizue *ezin ditugula bilerak klase orduetan jarri* eta bilera deitu baino lehen, ikasleen ordutegiak begiratzea komenigarria dela, beraien egoerara ahalik eta hobekien moldatzeko.

Dena den, 4. mailako antolaketa dela eta, praktiketara joan aurreko astean ez dute klaserik eta, beraz, hor egin daitezke bilera(k).

Bide batez, jakin ezazue astearte eta ostegunetan tarte librea dutela talde guztiak 13:00etatik 14:30era.

Bilera deiak emailaz eta norberaren bulegoko atean jarriz egin. Ikasleen emailak GAUREtik lor ditzakezue baina prozedura motelduko balitz, 1.03 bulegoan Begoña Urbietari eskatu zerrenda.

4. Practicumaren kalifikazioa

- Ikastetxeek betetako *ebaluazio orriak*, askotan, praktiketako bulegoan jasotzen ditugu, baina jaso bezain laster zuei bidaliko zaizkizue. Beraz, ikastetxeko nota jasotzeaz tutorea bera arduratuko da.
- Ikastetxeek betetakoari, tutoreak *bere ebaluazioa* gehituko dio eta, batz bestekoa kalkulatu ondoren, *emaitza* azken kalifikazioaren zutabearen jarriko du. Komeni da, ikastetxeko eta norberaren kalifikazioak argitaratzea ikasleak informazio hori izan dezan.
- Praktiketako notak *GAUR programan* akten atalean ere sartu behar dira; beraz, beste irakasgaiekin egiten den moduan, erreklamazio epearekin (5 egun) argitaratuko dira. Epea amaitu ondoren, espedientera pasa eta *idazkaritzan sinatuko* dira.

5. Notak argitaratzeko data

- Ohiko deialdia: kalifikazioak GAUREn *argitaratu* behar dira. Horretarako epea 2. *deialdiko (maiatzeko) azterketei dagokiena* izango da. Azkeneko akta, kalifikazio zerrendarekin batera argitaratzea gomendatzen zaizue, ikasleek praktikaldian eta memorian lortutako notaren berri izan dezaten. Gero, era berean, bi notak eta batzbestekoa 1.03 bulegora ekarri edo bidali emailez gure datu basean izateko.
- Ezohiko deialdia: kalifikazioak GAUREn *argitaratu* behar dira dagokion epeetan

6. Oharrak

- o Practicumeko gida guztiak [web orrian](#) dituzue. Hemen azaltzen dira irakasle tutorearen zeregin akademikoak.
- o Ikasleen datuak GAUREko nahitaezko praktikak atalean lor ditzakezue
- o Ikastetxeen helbideak eta telefonoak lortzeko, berriz, jo gure web orriko [ikastetxeen zerrendara](#).
- o Emailak nahi izanez gero eskatu Begoña Urbietari, 1.03 bulegoan.
- o Ikasle bakoitzaren ikastetxeko tutorea nor den jakiteko biderik onena ikaslea bera da. Praktikaldiaren lehen astean bidal diezazutela egokitu zaion tutorearen

telefonoa eta emaila (askotan egun horretara arte ikastetxeek ez dute zehazten tutorea).

- Tutorearen zenbait zeregin:
 - Bilerak antolatzea: hasi baino lehen, tartekoa(k), eta ondoren.
 - Ikastetxeko tutorearekin eskutitz bidez, emailez, telefonoz edo aurrez aurre harremanetan jartzea.
 - Ikastetxeetara bisita egitea. Bisita hauek ordainduko dira eta eranskinean duzue ordainketarako irizpideak, Juanani bete beharreko bisiten orria eta bisita egiteko bete beharreko baimen inprimakia
 - Ikastetxeko tutoreen notak jaso.
 - Bere ikasleekin sor daitezkeen arazoei konponbidea ematea:
 - Eskolara ez azaltzea: hango tutorearekin bermatu
 - Ardura akademikoa
 - Ikastetxeko tutoreekin erlazioa: ebaluaziorako, balorazio errealago bat lortzeko ...
- Egoera berezian dauden ikasleen mugak argi izan. Bestela, practicumeko zuzendariordeztan galdetu:
 - Exentzioa duenak bileretara etorri behar du eta bidalitako lan ezberdinak ere entregatu behar ditu.
 - Bere egoeratik eta epeengatik practicuma luzatzen zaion ikasleak, bidalitako lanak entregatzeko epeetara egokitu ezingo balu, practicumeko azken nota ekaineko deialdian jarriko zaio.